BESTELAKO XEDAPENAK

SEGURTASUN SAILA

3413

EBAZPENA, 2014ko uztailaren 18koa, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendariarena, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 1 zenbakiko Epaitegiak bideratu duen administrazioarekiko auzi-errekurtsoan (201/2014-B prozedura arrunta) interesdun izan litezkeenei deitzeko dena.

Goian azaldutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa (201/2014-B prozedura arrunta) herri-administrazioaren ondare-erantzukizunari buruzko erreklamazioak ezesten dituen 2014ko martxoaren 7ko Ebazpenaren kontra jarritakoa da. Erreklamazioak Ertzaintzaren Ikuskapen Eskalako Ikerketa Kriminaleko Ofizialondoko kategorian sartzeko hautaketa prozeduraren izapidetzan sortutako kalteen ondorioz aurkeztu ziren (2008ko martxoaren 5eko EHAA, 46. zk.). Vitoria-Gasteziko Administrazioarekiko Auzien 1 zenbakiko Epaitegiak espedientea bidaltzeko eskatuta, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 49.1. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, aipatutako prozeduran interesdun izan litezkeenei dei egiten zaie, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik hasita bederatzi eguneko epearen barruan ager daitezen prozeduran; eta hala, egoki baderitzote, euren legezko interesen alde egin ahal dezaten.

Arkauti, 2014ko uztailaren 18a.

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusia,
MALENTXO ARRUABARRENA JULIÁN.